



Campaña contra la precariedad y la pobreza - Martxoak 22 Madriler

LAB NAFARROA :: 05/02/2014

[Euskaraz]

PREKARIETATE ETA POBREZIAREN AURKA MOBILIZATUKO DIRA SINDIKATU ETA ERAGILE SOZIALAK

Euskal Herrian eredu aldaketa eskatzearekin batera, Martxoaren 22an Madrilen egingo den Duintasunaren Martxan parte hartuko dute, eredu ekonomiko eta sozialaren gainean erabakitze eskubidea aldarrikatzeko

GUNE plataformak, Euskal Herriko sindikatu (LAB, ELA, ESK, STEE-EILAS...) eta eragile sozialak biltzen dituen, gehiengo langileak pairatzen duen pobrezia eta prekarietatearen kontrako kanpaina egingo du. Bilbon aurkeztu ostean, agerraldia eman dute Iruñean, Nafarroak bizi duen emergentzia egoeraz ohartarazteko.

LABeko bozeramaile Igor Arroyok kontzertazio edo elkarrizketa sozialaren politikaren porrota azpimarratu du. "1995ean ezarri zen kontzertazio sozialaren politika hori. Etxegintzako burbuilaren olatuaren gainean igo eta klase borrokaren amaiera irudikatu nahi izan zuten UPN-PSNk ordezkaturako elite politikoak, Patronalak nahiz UGT-CCOO sindikatuek. Foru Hobekuntza inposatuz ezarritako Nafarroa foral eta espainolak ongizatea bermatzen zuela aldarrikatu zuten. Alabaina, bi hamarkada geroago, burbuila lehertu ostean, Nafarroa bankarrotaren ertzean dago eta langileria pobretzen ari da abiada bizian. Gaur langabezia gehiago pairatzen dugu, geure kaleratzea merkeagoa da, urte gehiago lan egin behar dugu, sortutako aberastasunaren zati txikiagoa jasotzen dugu eta zerbitzu publiko kaxkarragoak ditugu. Hamarkadetako borrokaren bidez lortutako eskubideak ezabatzen dizkigu Madrilek orain, UPNren laguntzarekin".

Nafarroan aldaketa bikoitzaren alde borroka egiteko deia egiten du LABek: Gobernu aldaketa eta batez ere Eredu aldaketa. Eta hain zuzen ere, eredu ekonomiko eta soziala aldatzeko, ereduaren gainean erabakitze eskubidea defendatu beharra dago Madrilen aurrean. Ildo horretan, mobilizazio gehienak Euskal Herrian egingo badira ere, GUNE plataforma Madrileko Duintasun Martxan parte hartuko du martxoaren 22an, sindikalgintza borrokalarian kide dugun SATek (Sindicato Andaluz de Trabajadores-as) sustatzen duena.

MOBILIZAZIOEN EGUTEGIA - CALENDARIO MOVILIZACIONES

OTSAILEAN - FEBRERO

Otsailak 6 Febrero. Araba, Gasteizko Legebiltzarra / Parlamento CAV

Otsailak 13 Febrero. Bizkaia, Lan Saila (Eusko Jaurlaritza, Bilbo) / Departamento Trabajo

Otsailak 20 Febrero. Gipuzkoa, Lanbide.

Otsailak 27 Febrero. NAFARROA 19:00 Ingura Gobernu ordezkari-tza! Rodea la Delegación del Gobierno!

MARTXOAN - MARZO

Martxoak 3 Marzo. Bilbon egingo den FMiren goi bilera dela eta, manifestazio nazionala / Manifestación nacional ante la cumbre del FMI en Bilbao

Martxoak 10-20 Marzo: Hego Euskal Herriko eskualde ezberdinetatik martxak / Marchas por las comarcas de Euskal Herria.

Martxoak 22 Marzo. Madrilen izango den Duintasun Martxa / Marcha por la Dignidad en Madrid

[Castellano]

SINDICATOS Y AGENTES SOCIALES SE MOVILIZARÁN FRENTE A LA PRECARIEDAD Y LA POBREZA

Reivindican un cambio de modelo en Euskal Herria y participarán en la Marcha de la Dignidad del 22 de Marzo para reivindicar el derecho a decidir el modelo económico y social

La plataforma GUNE, que agrupa a sindicatos (LAB, ELA, ESK, STEE-EILAS...) y colectivos sociales de Euskal Herria, va a desarrollar una campaña contra la pobreza y la precariedad que sufre la mayoría trabajadora. Tras su presentación en Bilbo, hoy han comparecido en Iruñea para alertar de la situación de emergencia social que se vive en Navarra.

El portavoz de LAB Igor Arroyo ha resaltado el fracaso de la política de la concertación o diálogo social. "En 1995 se estableció la política de la concertación social. Subidos en la ola de la burbuja inmobiliaria, la élite política de UPN-PSN, la Patronal y los sindicatos UGT-CCOO quisieron escenificar el fin de la lucha de clases en Navarra. La Navarra foral y española impuesta sin refrendo popular mediante el Amejoramiento, decían, aseguraba la Navarra del bienestar. Sin embargo, dos décadas más tarde, tras la explosión de la burbuja, Navarra está al borde de la bancarrota y la clase trabajadora se está empobreciendo a marchas forzadas. Hoy sufrimos más paro, nuestro despido es más barato, debemos trabajar más años, percibimos una parte menor de la riqueza producida y tenemos peores servicios públicos. Madrid nos está desbaratando los derechos conquistados durante décadas de lucha, con la complicidad del Gobierno de UPN".

LAB destaca la necesidad de luchar por un doble cambio en Navarra, cambio de Gobierno pero sobre todo cambio de Modelo económico y social. Y para cambiar el modelo económico y social, hay que reivindicar ante Madrid el derecho a decidir sobre dicho modelo. Por este motivo, si bien el grueso de las movilizaciones se celebrarán en Euskal Herria, la plataforma GUNE va a participar como Pueblo en la Marcha por la Dignidad del 22 de marzo en Madrid promovida por el Sindicato Andaluz de Trabajadores-as (SAT), con el que LAB mantiene una estrecha relación sindical.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/campana-contra-la-precariedad-y-la-pobre